

EUSKO JAURLARITZAK INTERNET BITARTEZ EGITEKO ORDAINKETA SISTEMA SEGURUA AURKEZTU DU MADRILEN

**Euskal Administrazioaren “pasaguneak” gainontzeko Erakunde
publikoen interesa erakarri du**


Euskal Erakundeek internet bitartez egiteko ordainketa sistema segurua errazten die euskal hiritarrei. Eusko Jaurlaritzaren Administrazioa Eraberritzeko Bulegoaren (AEB) Zuzendaria, Joseba Bilbaok berria eta beritzailea den zerbitzu hau eman du ezagutzera Madrilen, Sociedad de la Información adizkariak *“Gobernu elektronikoa: zergen esparruaren esperientzia”* izenburupean antolatutako jardunaldian. 2003ko urriatik Gipuzkoako ehun udalek eta Gipuzkoako Foru Aldundiak erabiltzen dute ordainketa “pasagunea”. Helburua, Bilbaok aurreratu duenez, Euskal Erakunde guztiek erabili ahal izateko ordainketa modu estandarrean bilakatzea izango da.

AEBko Zuzendariak gure erkidegoan martxan jarri den ordainketa “pasagunearen” ezaugarriak xehatu ditu Estatuko talde aditu baten aurrean. Lan jardunaldia goizez egin da eta bertan Zerga Administrazioeko Estatu Agentzia, Madrilgo Udala, Madrilgo Autonomi Erkidegoa, Bartzelonako Diputazioa, Microsoft eta ACTICA-k parte hartu dute.

Joseba Bilbaok, bere agerraldian *“Euskal administrazioak, zazpi entitate Finantzarioen laguntzarekin eta administrazioa on-line ekimenen esparruan, Ordainketa Elektronikoa egiteko Pasagunea martxan jarri du, non modu seguru eta konfidentzialean, datuak on-line elkaraldatzen diren”*

“Ekimen honen helburua” azpimarratu du *“ordainketaren izapidea egiterakoan hiritarrek sistema ezberdinen erabilera edota Entitate Finantzario kolaboratzaileen bulegoetaraino jo behar ez izatea saheistea da eta, batez ere, ordainketa pasagunea Euskal Erakunde guztientzat ordainketa modu estandarrean bihurtzea”*

Martxan jarri zenetik (2003ko urrian) gaurdaino, Gipuzkoako Udal Elkartearen ehun igorletik gora eta Gipuzkoako Foru Aldundia erabiltzen ari dira ordainketa sistema hau. Honela, tasak, isunak edota prezio publikoak prozedura honen bitartez ordaindu daitezke. Beste zenbait Erakunde Eusko Jaurlaritzarekin harremanetan jarri dira prozedura honi atxikitzeko asmoa agertuz, sistema berriak eskaintzen dituen aukerak paregabeak direla eta.



“Pasagunea” martxan jartzeak eta honen arrakastak, Bilbaok esan duenez *“diru-sarrerak kudeatzen dituzten gestore guztien ahalegina eskatzen du gaurko diru-sarreraren kudeaketa prozesuak berraldatzea beharrezkoa izango baita”*

Azkenik, on-line ordainketa egiteko, hiritarrak Entitate Finantzario Kolaboratzailearen baten txartela edukitzea beharrezkoa izango dela esan du euskal administrazioaren ordezkariak.

Madrilen aurkeztu den ordainketa sistema, *“Euskadi Informazio Gizartean” zehazten diren ekimenen artean kokatzen da. Izan ere, Administrazio eta Gobernu elektronikoa dagokien atalean erronka honetan Administrazioak duen bete beharra azpimarratzen da, eta erronka honi aurre egiteko, hiritarren eta Erakundearen arteko harremanetan sortuko diren beharrak berplanteatzea beharrezkoa izango da. “Eskakizun berriei erantzun ahal izateko eta honen prozesu berri guztiak Euskadi digital berriarekin egokitzearen, hausnarketa honek gobernua berantolatzea eskatzen du”* esan du AEBren Zuzendariak.